

ESPEDIENTEA: 3-2025

BIZKAIKO GETXOKO UDALTZAINGOAK EGINDAKO ATXILOKETA BATI BURUZKO TXOSTENA. JARDUKETA HORI IBAIGANE KALEAREN ATZEALDEAN BURUTU ZUTEN, SANTA EUGENIAKO APARKALEKUAREN ONDOAN.

I. AURREKARIAK

Getxoko Udalaren Herritarren Segurtasun Arloko zinegotziak 2025eko urriaren 6an sinatutako idazkia jaso genuen Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordean (Batzordea edo EAEPKGB). Aipatutako dokumentua 2025eko uztailaren 15ean prestatu zuten eta urte bereko uztailaren 14an bidali zioten Segurtasun Sailari.

Agiri horretan Zinegotziak jakinaren gainean jarri zuen gure Batzordea, 2025eko uztailaren 1ean Getxoko udaltzainek udalerriko Ibaigane kalearen atzealdean egindako polizia-jarduketa dela eta, herritar bat atxilotu zutenean burututakoa. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen (Poliziaren Legea edo EHPL) Testu Bateginaren 17. eta 19.1 artikulua aipatuta uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutakoa. Gainerakoa, honako hau zehaztu zuen:

EXPEDIENTE 3-2025

INFORME SOBRE LA ACTUACIÓN DE LA POLICÍA LOCAL DE GETXO (BIZKAIA) EN EL CURSO DE UNA DETENCIÓN EN LA TRASERA CALLE IBAIGANE JUNTO AL PARKING DE SANTA EUGENIA DE ESE MUNICIPIO

I. ANTECEDENTES

El 6 de octubre de 2025 se recibió en la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco (la Comisión o CCTPPV) un escrito de 15 de julio de 2025, suscrito por la Sra. Concejala del Área de Seguridad Ciudadana del Ayuntamiento de Getxo que había sido remitido al Departamento de Seguridad el 14 de julio de ese mismo año.

En su escrito, la Concejala puso en conocimiento de la Comisión, con invocación de los artículos 17 y 19.1 del Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco, aprobado mediante el Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio (Ley de Policía o LPPV), la actuación policial desarrollada por agentes de la Policía Local de Getxo el día 1 de julio 2025, con ocasión de la detención de una persona en la trasera de la calle Ibaigane de dicho municipio, precisando que:

“Jarduketa horren zati bat sare sozialetan eta komunikabideetan zabaltzeko da eta eragina izan dezake herritarrek Udaltzaingoan duten konfiantzan”. Era berean, honako hau azpimarratu zuten jakinarazpenean: “Getxoko Udalean ez dago aipatutako polizia-jarduketaren inguruan aurkeztutako kexa edo erreklamazio formalik”.

II. BATZORDEAREN ERABAKIA

2025eko urriaren 10ean EAEPKGB batzartu zen eta hurrengo erabaki zuen, EHPL 17.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera:

“1º Onartzea agindutakoa eta, beraz, aztertzea jakinarazitako gertakarian Getxoko Udaltzaingoak nola jokatu edo jardun zuen.

2º Eskatzea Getxoko Udalaren alkate andreaki [REDACTED] polizia atestatuaren eta [REDACTED] zenbakipeko polizia-jarduketaren kopia bidaltzeko, dokumentazioari dagokionez.

3º Eskatzea Getxoko udaltzainburuari Batzorde honi jakinarazteko udaltzainek ote duten jardunbide egokien protokolorik edo eskulibururik, kalean bizilagunak atxilotzeko dagokionez. Baiezkoan, horren ale bat bidali behar dute.

“Parte de dicha actuación ha sido objeto de difusión en las redes sociales y medios de comunicación, pudiendo tener impacto en la confianza de la ciudadanía en la Policía Local”. Se subraya, así mismo, en la comunicación que “en el Ayuntamiento de Getxo, no constan quejas ni reclamaciones formales presentadas en relación con la actuación policial referida”.

II. ACUERDO DE LA COMISIÓN

El 10 de octubre de 2025 se reunió la CCTPPV y, en ejercicio de la atribución conferida por el art. 17.2.a) LPPV, decidió:

“1º Aceptar el encargo y proceder al estudio sobre la conducta o práctica en el seno de la Policía Local de Getxo desarrollada en el incidente comunicado.

2º En relación con la documentación remitida, interesar de la Sra. Alcaldesa del Ayuntamiento de Getxo la remisión de una copia del atestado policial nº [REDACTED], con inclusión de una copia de la actuación policial registrada con referencia núm. [REDACTED].

3º Interesar de la jefatura de la Policía Local de Getxo que se informe a esta Comisión sobre si la misma dispone de un protocolo o manual de buenas prácticas para proceder en la detención de personas en espacios públicos. Con remisión, en caso afirmativo, de un ejemplar de dicho protocolo.

4º Eskatzea Getxoko udaltzainburuari Batzorde honi jakinarazteko zigortzeko eginbiderik hasi ote den lehen adierazitako gertakari horretan parte hartu zuten udaltzainen jarduketa dela eta. Hala izatekotan, zehazteko horiek izapidetu diren epaitegia zein den. Aipatutako udaltzainen identifikazio-zenbakiak: [REDACTED] eta [REDACTED].

4º Interesar de la jefatura de la Policía Local de Getxo que se informe a esta Comisión sobre si la actuación de los Agentes intervinientes en el incidente comunicado a esta Comisión, con número de identificación [REDACTED] e [REDACTED], ha dado lugar a la incoación de diligencias penales, con indicación, en este caso, del juzgado que se encuentre instruyéndolas.

5º Eskatzea Getxoko udaltzainburuari Batzorde honi jakinarazteko informatzeko edo diziiplina arloko prozedura administratiborik hasi ote den lehen adierazitako gertakari horretan parte hartu zuten udaltzainen jarduketa dela eta. Hala izanez gero, zehazteko horiek jaso duten kodea eta izapide horren egoera. Aipatutako udaltzainen identifikazio-zenbakiak: [REDACTED] eta [REDACTED].

5º Interesar de la jefatura de la Policía Local de Getxo que se informe a esta Comisión sobre si la actuación de los Agentes intervinientes en el incidente comunicado a esta Comisión, con número de identificación [REDACTED] e [REDACTED], ha dado lugar a la incoación de procedimiento administrativo informativo o disciplinario, con indicación, en este caso, de su signatura y estado de tramitación.”

III. GETXOKO UDALAK EMANDAKO DOKUMENTAZIOA

III. DOCUMENTACIÓN APORTADA POR EL AYUNTAMIENTO DE GETXO

Batzordeak honako dokumentu hauek jaso ditu:

La Comisión ha recibido los siguientes documentos:

- Polizia atestatua: [REDACTED] espediente, 2025eko uztailaren 1ekoa. Epailearen aginduz atxilotzea, Getxoko Udaltzaingoak Guardiako Epaitegiari.

- Atestado Policial: Expediente N.º [REDACTED], de 1 de julio de 2025. Detención por Orden Judicial, de la Policía Local de Getxo al Juzgado de Guardia.

- 1. dokumentua: [REDACTED] polizia-atestatua bidali izanaren egiaztageria. Hartzailea: Getxoko Auzialdiko Auzitegiaren 3 zenbakiko Instrukzioko Atal Zibila.

- Documento N.º 1: Justificante de remisión de Atestado policial [REDACTED] al Juzgado: Sección Civil y de Instrucción del Tribunal de Instancia N.º 3 de Getxo.

“Komunikazio Elektronikoko Segurua” delako idazkiaren egiaztagiria da. Horren bidez, Getxoko Udaltzaingoak atestaturik hona bidali zuen: Getxoko 3 zenbakiko Instrukzioko Atal Zibila (Penala). Dokumentuak honako atalak zituen: ordainagiri-zenbakia; bidali zuten data eta ordua (2025/07/02ko 10:12:56); erregistro-mota; eta kodea.

- 2. dokumentua: [REDACTED] zenbakipean erregistratutako polizia-jarduketaren laburpena. Getxoko Udaltzaingoa.

Herritarren Segurtasun Arloan kalean egindako jardueren zerrenda jasotzen zuen, honakoekin, besteak beste: alkohola kalean edaten zebilen norbait identifikatu zuten eta honako hau azaldu zen: SIP ROJO ALK.

- 3. dokumentua: Udaltzaingoaren komisarioak 2025eko uztailaren 2ko jarduketan egondako bi agente eta ofizialordeari eskatutako informazioak.

Lehenengo biei eskatu zien 48 orduko epean honakoak azaltzeko:

Atxilotua Polizia-etxetik/Komisaldegitik Areetako anbulatorioko Etengabeko Arreta Gunera nola eraman zuten; anbulatoriora heldutakoan gertatutakoak; atxilotua Santa Eugeniako parkinean atzeman zuteneko gertakariak; ihes egindakoa gelditu zutenekoak; eta azkenik, jarduketa hori behar bezala baloratzeko kontuan hartu beharreko beste inguruabar garrantzitsu guztiak.

Se trata de un justificante de “Comunicación Electrónica Segura” mediante el que la Policía Local de Getxo envía el Atestado a Pza. 3 Sec.Civ-Ins. Getxo (Penal), constando el número de recibo, la fecha y hora de envío (02/07/2025 10:12:56), la Clase de Registro y el Código.

- Documento N.º 2: Extracto de la actuación policial registrada con referencia [REDACTED]. Policía Local de Getxo.

Contiene la relación de actuaciones llevadas a cabo en el Área de Seguridad Ciudadana desde la identificación de una persona que está consumiendo alcohol en vía pública y salta SIP ROJO ALK.

- Documento N.º 3: Solicitudes de información del Comisario de Policía Local a los dos agentes y al suboficial intervinientes de 2 de julio de 2025.

A los primeros se les requiere que, en el plazo de 48 horas, aporten:

Descripción del traslado del detenido desde el centro policial-comisaría al centro sanitario PAC ambulatorio de las Arenas; descripción de los hechos ocurridos a la llegada al ambulatorio; descripción de los hechos en el momento en que se intercepta al detenido en el parquin de Santa Eugenia; descripción de los hechos en la inmovilización de la persona fugada; y cualquier otra circunstancia relevante que deba ser tenida en cuenta para la correcta valoración de la intervención.

Jarduneko ofizialordeari eskatu genion epe berean gertakari horri buruz zekienaren berri emateko, jarduketa behar bezala baloratzeko kontuan hartu beharreko beste alderdi garrantzitsu guztiekin batera.

Al suboficial de servicio se le solicita que en el mismo plazo informe acerca del conocimiento que tenga de esos hechos y sobre cualquier otra circunstancia relevante que, a su juicio, deba ser tenida en cuenta para la correcta valoración de la intervención.

- 4. dokumentua: agenteek eta ofizialordeak egindako txosten bana.

- Documento N.º 4: Informes de los agentes y del suboficial.

- 5. dokumentua: Udaltzaingoaren komisarioak egindako txostena, polizia-jarduketa baloratzeari dagokionez.

- Documento N.º 5: Informe del Comisario de la Policía Local sobre valoración de la actuación policial.

- 6. dokumentua: GARA eta HIRUKA hedabideetako prentsa-ebakinak.

- Documento N.º 6: Recortes de prensa en los medios de comunicación GARA e HIRUKA.

- 7. dokumentua: Ibaigane kaleko 15. zenbakiko pintadaren irudia, 2025-07-04an hartutakoa.

- Documento N.º 7: Imagen de pintada en la c/ Ibaigane 15, fechada el 04-07-2025.

- Getxoko Udaltzaingoaren jarduketari buruzko bideoa, 2025eko uztailaren 2an NAIZ egunkari digitalean argitaratua.

- Video sobre la actuación de la Policía Local de Getxo, publicado en el Diario digital NAIZ el día 2 de julio de 2025.

IV. TXOSTENAREN HELMENA

EAEPLren 20. artikulua honako hau ezartzen du: “Azterketa amaitutakoan, batzordeak txostena prestatuko du, honako alderdi hauek laburbilduz: kasuaren inguruabarrak; egindako jarduketak; polizia-jarduketaren zuzentasuna ebaluatzea, indarreko arau, estandar, prozedura eta jardueraprotokoloen arabera; azpiko arazoak aztertzea; eta azkenik, horri buruzko gomendioa luzatuko du. Gomendio horretan, hala badagokio, zuzentzeko, aurea hartzeko edo hobetzeko neurriak proposatzeko aukera dago, horien bitartez gabeziei aurre egiteko edo antzemandako arazoak berriro ez errepikatzeko.”

1. Batzordearen eskuhartzearen oinarria

Adierazitakoaren arabera, EHPLren 17. eta 19.1 artikuluetan xedatutakoaren babesean egin zuen bere jakinarazpena Getxoko Udalak. Zehazki, EHPLren 17.2.a) artikulua EAEPKGBren esku utzi du, Ertzaintzaren edo Udaltzaingoaren barruko honako jokabide edo jardunbideak aztertzea, 19.1 artikuluan aipatutako erakundeek eskatuta: lehenik, eskubideen urraketek buruzko kexak eragiten dutenak; eta bigarrenik, herritarrek polizia-jardunean duten konfiantzan eragin kaltegarria izateari buruzko kezka larria pizten dutenak.

Jasota geratu da, halaber, Getxoko Udalak Batzordera jotzeko arrazoia izan zela polizia-jarduketaren azken segundoak jasotzen dituen bideoaren hedapen zabalak herritarren konfiantzan eragin zezakeen kaltea.

IV. ALCANCE DEL INFORME

El artículo 20 LPPV establece: “Finalizado su estudio, la comisión emitirá un informe resumiendo las circunstancias del caso; las actuaciones realizadas; la evaluación de la corrección de la actuación policial conforme a las normas, estándares, procedimientos y protocolos de actuación vigentes; el análisis de los problemas subyacentes, y formulará una recomendación, que puede incluir, en su caso, la propuesta de medidas correctoras, preventivas o de mejora para hacer frente a las carencias o para evitar que se repitan los problemas detectados.”

1. Fundamento de la intervención de la Comisión

Según se ha indicado, la comunicación del Ayuntamiento de Getxo se hizo al amparo de los artículos 17 y 19.1. Concretamente el artículo 17.2.a) LPPV, encomienda a la CCTPPV estudiar, a solicitud de las instituciones referidas en el artículo 19.1, cualquier conducta o práctica en el seno de la Ertzaintza o Policía Local respectivamente, sobre la que se hayan recibido quejas sobre vulneración de derechos u otras en las que exista seria preocupación sobre el impacto en la confianza de la ciudadanía.

También se ha dejado constancia de que el motivo por el que el Ayuntamiento de Getxo acudió a la Comisión fue el negativo efecto que para esa confianza podría haber causado la amplia difusión que tuvo el video que recoge los últimos segundos de la actuación policial.

Horrenbestez, beharrezko baldintza daukagu jasotako eskaera zilegiztatzeko eta poliziaren eskuhartzea aztertzea justifikatzeko.

Concorre, en consecuencia, la circunstancia que legitima la solicitud recibida y justifica el análisis de la intervención policial realizada.

1. Gertakariaren inguruabarrak.

1. Circunstancias del caso.

a) Atestatua

a) Atestado

Getxoko Udaltzaingoak egindako atestatuan eta espedientearen dokumentazioan azalduta agertzen dira txosten honetan aztertutako 2025eko uztailaren 1eko polizia-jarduketari buruzko inguruabarrak. Laburbilduz, honako hauek dira:

En el atestado formulado por la Policía Local de Getxo y en la documentación que obra en el expediente se describen las circunstancias en las que se desarrolla la actuación policial el 1 de julio de 2025 objeto de este informe. En síntesis, son las siguientes:

- 19:00ak aldera, [REDACTED] jauna atxilotu zuten errequisitoria judiziala betetzeko asmoz, Algortako Maria Cristina erregina parkean topatu zutenean, kalean alkohola edateagatik egindako ohiko identifikazioa zela-eta. Horren bidez, udaltzain jarduleek ([REDACTED] eta [REDACTED] udaltzainek) jakin ahal izan zuten bazegoela bizilagun hori bilatzeko, atxilotzeko eta 6 zenbakiko Bilboko Instrukzio Epaitegian aurkezteko agindua. Une horretan bertan eta lehen aldiz bere eskubideen berri eman zioten atxilotuari eta Udaltzain-etxera eraman.

- Sobre las 19.00 horas se efectúa la detención de D. [REDACTED] en cumplimiento de una requisitoria judicial al hallarle en el parque Reina María Cristina de Algorta, con motivo de una identificación rutinaria por consumo de alcohol en vía pública, mediante la que los agentes actuantes (agente [REDACTED] y agente [REDACTED]) advierten la existencia de una Orden de búsqueda, detención y presentación ante el Juzgado de Instrucción nº 6 de Bilbao de dicha persona. Se procede en ese mismo acto a informarle, por primera vez, de sus derechos y se traslada al detenido a Comisaría.

- 20:39an, Getxoko Udaltzain-etxean, atxilotuari bere eskubideak irakurtzeko eta ulertu zituela egiaztatzeko eginbidea burutu zuten.

- A las 20,39 horas en la Comisaría de Getxo de la Policía Local se practica Diligencia de lectura y comprobación de la comprensión de sus derechos a la persona detenida.

- 23:00etan, atxilotuak laguntza medikoa eskatu zuen, hagineta mina zuela aipatuta. Bizilagun hori eramateko prestatzeari aldera, [REDACTED] udaltzainak bizkarrean jarri zizkion girgiluak atxilotuari eta horrek lasaitzeko eskatu zuen une horretan, eskumuturreko mina zuelakoan. Udaltzainak eskatutakoa onetsi eta minik ez izateko moduan ipini zituen. Horren ostean, patruilako auto batez eraman zuten Udaltzain-etxetik (Getxoko) Areetako anbulatoria.

- 23:10ean, anbulatoria heldutakoan, [REDACTED] udaltzainak autoaren atea ireki zuen, atxilotuari irteten uzteko. Bat-batean, bere hankak erabilita, autoaren atea gogor bultzatu zuen eta udaltzaina kolpatu. Une horretan, atxilotuak ihesari ekin zion, korrika.

Udaltzainak atzetik jarraitu zion, Ibaigane kalearen atzealderaino. Bertan, kontra egiteko asmoz eta jarrera oldarkorra erakutsita zuzendu zitzaion udaltzainari jazarritako bizilaguna, lehenago askatu zituen girgiluak eskuan hartuta eta eskumako eskutik zintzilikatuta, burdinazko ukabil baten modura. [REDACTED] udaltzainak, atxilotuaren erreakzioa ikustean, borra (polizia-makila) atera zuen eta, hori erabili barik, lankidearen babesaren zain geratu zen. Bitartean, behin eta berriz agindu zion ihes egindakoari jarrera horri uzteko eta bere burua entregatzeko, baina horrek ez zion jaramonik egin eta beste aldeko espaloirantz abiatu zen, baterian aparkatutako ibilgailuen artean sartuta, eremu ilunagoan.

- A las 23.00 horas el detenido solicita asistencia médica ya que refiere dolor de muelas. Al preparar el traslado de dicha persona, el agente [REDACTED] coloca los grilletes a la espalda del detenido, instante en el que el detenido solicita que los afloje ya que le duele la muñeca. El agente accede y los coloca de tal manera que no sienta dolor y se inicia el traslado en un vehículo patrulla desde las dependencias policiales al ambulatorio de Las Arenas, en Getxo.

- A las: 23,10 horas, a la llegada al ambulatorio, el agente [REDACTED] abre la puerta del vehículo para dejar salir al detenido. Este, de pronto, empuja fuertemente con las piernas la puerta del coche golpeando al agente que resulta desplazado, lo que aprovecha el detenido para salir corriendo.

El agente le persigue dándole alcance en la trasera de la calle Ibaigane, donde, con actitud hostil y desafiante, el perseguido se enfrenta a él, agarrando el grillete que se había soltado y tenía colgado de su mano derecha, a modo de llave de pugilato o puño americano. El agente [REDACTED], al ver la reacción del detenido, saca su defensa personal (el bastón policial) y, sin llegar a utilizarla, espera el apoyo de su compañera. Mientras tanto, ordena repetidamente al huido que deponga su actitud y se entregue, pero este hace caso omiso y se desplaza hacia la acera contraria y metiéndose entre los vehículos estacionados en batería en una zona más oscura.

- Segundo gutxitan beste udaltzaina () heldu zen patrulla-autoan. Udaltzain biek gizona inguratu eta zoruraino jaitsarazi zuten, ahuspez laga arte. Borrokan hasi ziren, udaltzaina saiatu zelako iheslariaren eskumako besoa gorputzaren azpitik aterarazten, izan ere, aldeko horretako eskuan girgiluak zituen.
- En pocos segundos llega en el coche patrulla la otra agente . Ambos policías rodean al individuo y lo reducen llevándolo al suelo donde queda boca abajo. Comienza un forcejeo en el que el agente trata de extraer el brazo derecho de debajo del cuerpo del fugado, en cuya mano derecha mantiene sujetos los grilletes.
- Atxilotuak gogor kontra egiten zuenez gero, udaltzainak bere borra askatu zuen eta arma lurrera jausi zen, bere osotasun fisikoa zein gainerako udaltzainena arriskuan egotearen beldur. Horren ostean, eskumako ukabilaz atxilotuaren sorbaldaren eskumaldea bitan jo zuen eta, gogor egiteari behingoz uztera eta eskuburdinak lagatzera behartzeko. Behin mendean hartzea lortuta, udaltzainak girgilua ipini zion eta atxilotuaren burua babestu zuen, bertan minik har ez zezan. Jarraian, polizia-ibilgailura eraman zuten atxilotua, zeinak berriro gogor egin baitzion barrura sartzeari eta esertzeari. Bitartean, udaltzain batek burua babestu zion, barrura sartzean kolperik har ez zezan.
- Ante la intensa resistencia del detenido y temiendo un riesgo para su integridad física y la de los agentes, el agente suelta su bastón, que cae al suelo, y, con su mano derecha cerrada, golpea dos veces el hombro derecho del detenido para desactivar su resistencia y lograr que suelte la espasa. Una vez que lo consigue, procede a engrilletarle, mientras la agente le protege la cabeza para que no sufra lesiones. A continuación, el detenido es conducido al vehículo policial y sigue ofreciendo resistencia a ser introducido y sentarse en él, mientras un agente protege su cabeza para que no se golpee al entrar.
- Mendean hartu eta eskuburdinak jarri ondoren, udaltzainek Areetako anbulatoriora eraman zuten atxilotua. Bertan, beste udaltzain batzuek ordezkatu zituzten ardura horretan. Zauritutako udaltzainek mutualitatera jo zuten lesioak artatzera.
- Una vez reducido y esposado, los agentes trasladan al detenido al ambulatorio de Las Arenas y allí son sustituidos por otros agentes, mientras ellos se dirigen a la Mutua para ser atendidos de las lesiones sufridas.
- 23:38an anbulatoriotik komisariara itzuli ziren.
- A las 23.38 horas regresan a la Comisaría después de pasar por el ambulatorio.

Espedienteen jasota dauden mediku-parteen arabera, udaltzain batek eskumako eskuan ubeldura eta urradura zituen, eta bestea, berriz, urradurak agertu zituen ezkerreko eskuan eta belaun bietan, baina laneko bajarik eragin barik.

Atxilotuari osasun-zentroan egindako azterketan, bere esanetan zeukan hagineko mina zela eta, medikuak ez zuen lesiorik ikusi hortzetako ezein piezatan. Honenbestez, paracetamola eta ibuprofenoa hartzeko agindu zion. Horri dagokionez, ziegan egon bitartean, medikazio hori hartzeari uko egin zion.

Izandako jokabideagatik, [REDACTED] zenbakidun buletineko salaketa administratiboa ezarri zioten, udaltzainek agindutakoa ez betetzeagatik eta horien kontra egiteagatik herritarren trafikoaren/segurtasunaren arloan indarreko araudian aurreikusitakoa urratu zuelako (Herritarren Segurtasuna Babesteko 4/2015 Lege Organikoaren 36.6 artikulua, martxoaren 30ekoa).

b) GARA n argitaratutako informazioa.

GARA egunkariak gertakariaren berri eman zuen 2025eko uztailaren 3an eta aurreko egunean NAIZ egunkari digitalak sare sozialetan zabalduetako bideoaren berri eman.

GARA egunkariak zekarrenaren arabera, "Getxoko udaltzain batek Erromon atxilotutako bizilagun bat jo du lurrean". Gertakariaren parean dagoen etxebizitza batetik bideoan grabatutako irudiei dagokienez, honako hau dio:

Según consta en los partes médicos, que obran en el expediente, un agente resultó con contusión y abrasión en la mano derecha, y la otra agente con abrasiones en la mano izquierda y en ambas rodillas, sin causar baja laboral.

En la exploración del detenido en el centro sanitario, por el dolor de una muela que manifiesta tener rota, el facultativo no observa lesiones en ninguna pieza dental y le pauta paracetamol e ibuprofeno, medicación que una vez en el calabozo rechazó tomar.

Por su actuación se formuló denuncia administrativa boletín nº [REDACTED], por ser autor de una infracción a lo previsto en la normativa vigente en materia de tráfico/seguridad ciudadana, en cuanto a la desobediencia y resistencia a agentes de la autoridad (artículo 36.6 de la Ley Orgánica 4/2015, de 30 de marzo, de Protección de la Seguridad Ciudadana).

b) Información publicada en GARA.

El diario Gara informó del incidente el 3 de julio del 25, haciéndose eco del video publicado el día anterior por el diario digital NAIZ que tuvo difusión en las redes sociales.

Según Gara "un policía local de Getxo golpea en el suelo a una persona detenida en Erromo." De las imágenes grabadas en video desde una vivienda situada enfrente de los hechos, afirma que:

Bideoan “udaltzain biak atxiloketa burutzen dabiltzan unea baino ez du erakusten. Ikus daitekeenez, bizilagun bat auto baten atzean ezkutatu da, eskuak buruan dituela, eta udaltzain batek, borra eskuan daukala, autoaren beste aldetik ez mugitzeko agindu dio, bera ere gerturatu ez arren. Gizonak behin baino gehiagotan errepikatu du “hemen geratuko naiz” eta horrela aditzera eman du ez diola atxiloketari kontra egingo. Jarraian, polizia-auto bat heldu da eta nabarmen aztoratuta dagoen beste udaltzain bat jaitsi da bertatik. Hainbat aldiz errepikatu du “Demontre!” (euskaraz esango genukeen moduan) eta zuzenean abiatu da bizilaguna lotzera. Itxuraz, bizilagunak ez dio aurre egin.

Horren ondoren, lehengo udaltzaina hurbildu da atxilotua lurrean dagoela, ustez lankideak lotu duelako, eta pare bat ukabilkada eman dizkio.”

c) NAIZ hedabidean zabalduko bideoa.

Hedabide digital honek hurrengo informazio hau jaso zuen:

“NAIZen ikusi ahal izan dugun bideo baten arabera, udaltzainek bizilagun bati eraso egiten diotela ematen du, Getxoko Erromo auzoko Ibaigane kalean, aparkalekutik gertu, hura atxilotu bitartean.

Bideo horretan udaltzain bien artean atxilotzen duten unea besterik ez dute erakusten. Ikus daitekeenez, norbait agertzen da auto baten atzean ezkutatuta eta eskuak buruan dituela. Hala, hainbat aldiz honakoa errepikatu dio ibilgailuaren beste aldean dagoen udaltzainari: «hemen geratuko naiz». Orduan, udaltzainak,

El video “muestra únicamente el momento en el que dos agentes locales practican el arresto. Por lo que se puede apreciar una persona se parapeta detrás de un coche con las manos en la cabeza, y un policía, porra en mano y al otro lado del coche le ordena que no se mueva, aunque él tampoco se decide a acercarse. El hombre repite varias veces “me quedo aquí”, dando a entender que no se opondrá a ser detenido. Acto seguido llega un coche policial del que baja otra agente visiblemente alterada y, repitiendo varias veces “me cago en Dios”, va directamente a inmovilizarle, sin que este, aparentemente, se resista.

Tras ello, el primer agente se aproxima cuando el detenido ya está en el suelo, supuestamente inmovilizado por su compañera, y le propina dos puñetazos”.

c) Video publicado en NAIZ.

Este medio digital recoge la siguiente información:

“NAIZ ha tenido acceso a un vídeo donde se muestra lo que parece una agresión policial durante una detención en la calle Ibaigane del barrio getxoztarra de Erromo, cerca del parking.

El vídeo muestra únicamente el momento en el que entre dos agentes practican la detención. Por lo que se puede apreciar, una persona se parapeta detrás de un coche y con las manos en la cabeza repite varias veces al policía que está al otro lado del vehículo «me quedo aquí». El agente, porra en mano y sin acabar de acercarse a

eskuan borra daukala eta harengana hurbildu barik, «ez mugitu» esan dio. Jarraian, polizia-auto bat iritsi da, eta nabarmen aztoratuta dagoen beste udaltzain bat jaitsi da bertatik. Hainbat aldiz errepikatu du «Demontre!» (euskaraz esango genukeen moduan), eta zuzenean abiatu da bizilaguna lotzera.

Ondoren, lehen agentea hurbildu egin zen, atxilotua lurrean zegoela, ustez bere lagunak immobilizatuta, eta bi ukabilkada eman zizkion. Erasoaren aurrean, auzokide batek ertzainei bere jokabidea aurpegiratu die.

Itxuraz, bizilagunak ez dio aurre egin, auzokide batek NAIZ hedabideari adierazi dionez, bideoaren sekuentziaren ondoren polizia-patrulla gehiago heldu ziren, kalea hartu zuten eta atxilotua autoetako batean eraman zuten, oinezko gehiagoren protestak zirela eta. Bere esanetan: «Etxean geunden, oihu batzuk entzun genituen, leihotik atera ginen eta ikusi genuen Udaltzaingoaren auto bat gelditu zela mutil baten bila, bizilagun horrek eskuak altxatuta zituen eta jarraian kolpeak egon ziren».

d) NAIZ hedabidean zabaldutako bideoan ikusitakoa.

NAIZen jaso eta sare sozialetan zabaldutako bideoak hogeita hemeretzi segundo dirau. Gauez grabatuta dagoenez, irudia ez da argia. Bertan, honako sekuentzia hau jasotzen da:

-Kamera baterian aparkatutako ibilgailu-ilara bati begira dago. Horien aurrealdeak galtzadara jotzen du eta atzealdeak, berriz, horma baten ondoan dagoen espaloi batera.

él, le dice «no te muevas». Acto seguido, llega un coche policial del que baja otra agente visiblemente alterada y, repitiendo varias veces «me cago en dios», va directamente a inmovilizarle sin que este, aparentemente, se resista.

Tras ello, el primer agente se aproxima cuando el detenido ya está en el suelo, supuestamente inmovilizado por su compañera y le propina dos puñetazos. Ante la agresión, una vecina recrimina a los agentes su actuación.

Una vecina testigo de los hechos ha señalado a NAIZ que tras la secuencia del vídeo llegaron más patrullas policiales, tomaron la calle y trasladaron al detenido en uno de los coches ante las protestas de más transeúntes. «Estábamos en casa, escuchamos unos gritos, nos asomamos por la ventana y vimos cómo la Policía detenía un coche de la Policía municipal yendo a por un chico que estaba con las manos levantadas y los golpes que sucedieron después», relata.”

d) Visionado del video publicado en NAIZ.

El video recogido y difundido por NAIZ y en redes sociales tiene una duración de treinta y nueve segundos, está grabado cuando ya es de noche y la imagen no es nítida. En él se capta la siguiente secuencia:

- La cámara enfoca una fila de vehículos estacionados en batería con la parte delantera mirando a la calzada. La parte trasera da a una acera que da a una pared.

- Auto ilun baten atzean, hormari bizkarra emanda, bizilagun bat dago eta besoak buruaren parean ditu altxatuta, ibilgailuaren beste aldean dagoen udaltzain bati (████ agenteari) begira, aurrez aurre.
- Getxoko Udaltzaingoaren patruila-ibilgailua heldu da. Une horretan, █████ udaltzainak ibilgailuaren kapota jo du eta, bizilagun horrengana joz, honako hau esan du: "Ea, ergel hori, etorri hona, eta ez mugitu".
- Azken horrek hurrengoa erantzun du: "hemen geratuko naiz, hemen geratuko naiz, hemen geratuko naiz, hemen geratuko naiz".
- █████ udaltzainak honakoa errepikatu du: "ez mugitu, etortzeko diotsut."
- Une horretan ikusi da autoen atzean dagoen bizilagunak eskumako eskua jaitsi eta ezkerrekoa altxatuta utzi du, eta hurrengoa erantzuten dio: "ez, ez, ez, ez". Gainera, ulertu ezin den beste zerbait gehitu du.
- Segundo batzuk geroago, patruila-autotik haren gidaria (████ udaltzaina) atera da eta aparkatutako autoetako bat eskumatik inguratu du, ihes egindako bizilagunaren ondoan paratu arte. Gizona haien atzetik dago oraindik eta beste udaltzaina (████ agentea) ezkerretik hurbildu da.
- █████ udaltzainak "Demontre! Mutiko, Demontre!" oihukatu du sei bider errepikatuta eta, aldi berean, iheslaria makurtu egin da, itxuraz etsita dagoelako, eskuak belarrietatik gertu dituela. Antza denez, █████ udaltzaina oldartu zaio eta biak ahoz behera jausi dira espaloira.
- Detrás de un coche de color oscuro y de espaldas a la pared hay una persona con los brazos levantados a la altura de la cabeza mirando de frente a un policía (agente █████) que se encuentra al otro lado del vehículo.
- Llega un vehículo patrulla de la Policía Local de Getxo. En ese momento, el agente █████ golpea el capó del vehículo y, dirigiéndose a la citada persona, dice: "a ver, "gilipollas" que vengas aquí, ni te muevas".
- La persona aludida responde: "me quedo aquí, me quedo aquí, me quedo aquí, me quedo aquí."
- El agente █████ repite: "ni te muevas, que vengas."
- En ese instante se observa como la persona que está detrás de los coches baja su mano derecha y mantiene en alto la izquierda y responde: "no, no, no, no" y algo más que resulta ininteligible.
- En unos segundos, sale del coche patrulla su conductora (la agente █████) que rodea por la derecha uno de los coches aparcados hasta situarse junto a la persona fugada, que sigue detrás de estos, mientras el otro policía local (agente █████) se aproxima por la izquierda.
- La agente █████ exclama "me cago en Dios, chaval, me cago en Dios", repitiéndolo hasta un total de seis veces, al tiempo que el huido se agacha en actitud aparentemente resignada con las manos separadas la altura de sus orejas. La agente █████ parece echarse sobre él cayendo ambos boca abajo a la acera. Se oye la voz

Lehenaren ahotsa entzun da, baina ez da ulertzen zer esan duen.

del primero, pero no se entiende lo que dice.

- ■ udaltzainak, arauzko makila eskumako eskuan duela, mugimendu bat egin du alde horretako hankaz, eta atxilotuaren eta ■ udaltzainaren ondoan belaunikatu da. Une horretan, lurrera jausitako zerbaiten zarata entzun da, poliziaren borra izan daitekeena. Jarraian, ■ udaltzainak eskumako ukabila altxatu eta atxilotua bitan jo du, baina ez da argi bereizten gorputzaren zein ataletan izan den. Azkenik, atzetik heldu dio, ustez eskuburdinak jartzeko.

- El agente ■, que porta en su mano derecha la defensa reglamentaria, realiza un movimiento con la pierna de ese mismo lado y se arrodilla junto al detenido y la agente ■. Se escucha en ese instante un ruido de algo que cae al suelo, que pudiera ser la defensa del policía. Acto y seguido, el agente ■ levanta el puño derecho y golpea al detenido dos veces sin que se distinga con claridad en qué parte de su cuerpo y le sujeta por detrás, se supone que para esposarle.

- Andre batek ozen esan du honakoa: "E!, e!, e!, e!".

- Una mujer exclama: "Eh, eh, eh, eh".

Grabazioa amaitzean, udaltzaina belauniko jarrita agertzen da, kamerari bizkarra emanda, eta udaltzainek zerbait esan dutela entzun da, baina ezin da ulertu.

Termina la grabación con la imagen del agente arrodillado y de espaldas a la cámara y el sonido de lo que se dicen los agentes, que es ininteligible.

e) Ikergaiaren inguruabarrak laburtzeko kontuan hartu beharreko informazioa.

e) Información a considerar como resumen de las circunstancias del caso.

Polizia-jarduketa orori buruzko Batzordearen txostenek inguruabar guztiak kontuan hartu behar dituzte, hasieratik amaitu arte gertatutakoa ulertu ahal izateko. Gainera, gertakari horien laburpena egin behar du.

El Informe de la Comisión sobre cualquier actuación policial debe tener en cuenta el conjunto de circunstancias que permitan comprenderla desde su inicio hasta su final y de las cuales ha de hacer un resumen.



Horri dagokionez, gorago azaldutakoa da, Getxoko Udaltzaingoaren polizia-atestatua eta txostenak oinarri hartuta, polizia-jarduketaren hasiera, garapena eta amaiera deskribatzen baitute. Hau da, bizilagun bat atxilotu zuten Algortan, Udaltzaingoaren komisaldegira eraman zuten, atxilotua Areetako anbulatoria eraman zuten, patrulla-autoak ihes egin zuen eta behin betiko atxilotu zuten Ibaigane kalean, Santa Eugeniako aparkalekuaren ondoan.

Gainera, azken atxiloketa horren amaierari buruz haietan aipatutakoa bat dator funtsean NAIZ hedabideak argitaratutako eta sare sozialetan zabaldutako bideoaren irudiek erakusten dutenarekin, aurreko atalean jasota geratu den bezala, baina azalpen garrantzitsu bat behar da, definizio eskasa duelako, distantziak eta gaueko iluntasunak eraginda.

Horrela, aipatutako egunkariak iheslariaren mugimenduak eta udaltzainen aurrean hartu zuen jarrera interpretatu zituen, etsipena eta aurka egiteko asmorik ez zuela adierazten zutelakoan.

Hala ere, ukaezina da iheslariak besoak eta eskuak bananduta eduki zituela sekuentzia osoan eta haietako bat jaistera ere heldu zela bestea altxatuta zuen bitartean, geroago alde egingo zuen autoan sartu aurretik eskuburdinak jarri zizkioten arren. Mugimendu horiek argi eta garbi ikusi dira, baina ihes egin aurretik girgiluak askatu zituelako soilik izan zuen horiek egiteko aukera. Hori dela eta, udaltzainen kontakizunak erabat egiantzekoa ematen du, izan ere, iheslariak eskuan girgiluak eroaten zituen eta gertakari osoan eskuan helduta eta agerian zeuzkan. Hala esan dezakegu, grabazioaren kalitatearen

En este caso es el realizado más arriba a partir del atestado policial y los informes de la Policía Local de Getxo que describen el comienzo, desarrollo y terminación de la actuación policial. Es decir, desde la detención de una persona en Algorta pasando por su traslado a dependencias policiales, la posterior conducción del detenido al ambulatorio de las Arenas, la huida de este del coche patrulla y su detención definitiva en la calle Ibaigane, junto al parking de Santa Eugenia, de esa localidad.

Además, lo en ellos relatado sobre el final esta última detención, concuerda en lo sustancial con lo que muestran las imágenes del video publicado por NAIZ y difundido en las redes sociales, tal y como se ha dejado constancia en el apartado anterior, si bien es precisa una importante aclaración, dada su escasa definición, debida a la distancia y a la oscuridad de la noche.

